


## JOXE ZELAIA LEZOARRAREN BERTSO-PAPERAREN

**G**aur egun Joxe Zelaia (XIX-XX. mendeak) bertsolari lezoarraren bizitza eta literatur lanak ezezagunak dira. Hemen, ordea, ilunpetik atera dugu Lezoko festa nagusien inguruau idatzi zuen eskuizkribua (zoritzarreaz hiru bertsolarerro galdu egin dira). Era honetan, Zelaia Lezoko literatura klasikoan bere lekutxoa betetzera dator, Zamora, Isasti, Gaintza, Sarasola, Garbizu eta abarrekin batera.

Bertso-papera XX. mendearren hasierakoa da, eta transkripzioa egiterakoan jatorrizko grafiak bere horretan mantendu ditugu, kasu bakar batean ezik: s (ese tontorduna), x bezala berridatzi dugu. Hala: bezelase, bezelaxe; Felis, Felix; Gaspar, Gaxpar; eta Andres, Andrex.

"1 / Canta polit batsuek / pentza det jartsia / mezede eguijute / ontzat artutsia / eman ezkerro itza / on da kumplitsia / etzait gustatsen iñor / engañatutsia. // 2 / Adierazi naiyan / notizi berriyak / arkitzen dirade gaur / nere kutizi-yak / egon zaiteste firme / onetan etsiyak / eguiyak diradela / kontuok guziyak. // 3 / CHit erri chiki bat da / deitzen dana Lezo / beragatik dabisgu / oraiñ milla itz gozo / gastiak arkitsen gera / posturikan ozo / urteroko festak / eldu diralako. // 4 / Snt<sup>a</sup> Crutz jayoriyek / dirala mediyo / erri-yontan badabiltz / milla argudiyo / gastiak bates ere / es egon zeriyoy / nere itzeta danak / zaiteste bai fiyo. // 5 / Feztoyen aziyera / vespera arratsetik / jigante kabezuduak / dirala aurretik / muzikaren soñuan / aurre ta atsetik /



(Irudia: Carlos Landi Sorondo)

dantzan ekuziko da / jendia gogotik. // 6 / Azkok dakizutena / feriko kontuak / urtero bezelaxe / dira aurtenguak / or zalduko dira gaus / milla klasekuak / gulako pobrientzat / aukera onekuak. // 7 / Oriyek danak eta / beste gauza azko / ayuntamentu jaunak / ditu paratseko / politenak oraindik / dauskat ezateko / parres zera-detenak / guziyoik jarriko. // 8 / Ayuntamentukuak / dutena eskatu / gobernadore jaunak / diyote logratu / orlako lisentsiya / zaigu gui gustatu / gastiak arkitsen / gera chit kontentu. // 9 / Zezenak omen dira / Lezon jokatseko / erriko semiak ere / toriatutseko / Vicente Oregi eta / Aburrito chiko / bi lenguzu oyek dira / zezenak iltseko. // 10 / Uzatsen dan bezela / jantsirik dotore / Felix eta gastelu / dira pikadore / diyote etzayotela / importa batere / saldi ta berak aidian / botagaitik ere. // 11 / Zortzi mono sabiyo / dirade prestatu / korridorretan parte / nai dutenak artu / saldi zarrak billatsen / artsen milla tratu / Arriaundiko Gaxpar / dute kontratatu. // 12 / Oraindikan geyago / oyezas gañera / zezenak astekuan / ikusteko gera / Andrex igorik kaja / ..... / ..... / ..... // 13 / Jakak ere omen du / ortan artu parte / mono sabiyo maisu / bera omen dute / danan buru egiñas / gusiyán presente / Balbino isango da / Plazan Presidente. // 14 / Toreruak gastiak / izanagatika / es omen da izango / beren fal tarika / diyote etsayotela / batere importika / nais da adarra zartu / tripan erditika. // 15 / Nola pikadore eta / ala toreruak / beren jayotzatikan / dira Lezokuak / eta nola baitiren / danak errikuak / oriyek ikusteko / gaude zaletuak. // 16 / Lizentsiya nuben ta / orra publicatu / zer festa bear diran / Lezon zelebratu / inor engañatzerik / es det nik pentsatu / ofentsik egin badet / mzedes barkatu. // Jose Celaya [sinadura eta izenpeko]"

LANDER ZURUTUZA